

ESKOLAZ ESKOLA EUSKARAREN MAPA AZTERTZEN

Guía de actividades a favor del euskera



eskola
denon
araba



Aurkezpena Presentación

Guraso elkarte desberdinek egin-dako euskararen aldeko ekintzen gida daukazu esku artean. Gida hau esperientzietan oinarritu da, ez duzu ekintzen deskribapen zehatzik izango, baina behintzat gaintetik lana nola egiten duten jakingo duzu. Espero dugu berearekin gozatu ahal izatea. Eskerrik asko parte hartu duten Guraso elkarte guztiei!

Esta es una guía sobre las actividades que realizan las diferentes AMPAs a favor del euskera. No vas a encontrar la descripción detallada de las actividades, pero sí las vivencias de las AMPAs y su forma de trabajar. Esperemos que sea de vuestro disfrute y utilidad. ¡Muchas gracias a todas las AMPAs que habeis participado!

Aurkibidea

Abendaño.....	3	Luis Elejalde.....	12
Mariturri.....	4	Lakuabizkarra.....	13
Zabalgana.....	5	Odon de Apraiz.....	14
Aldaialde.....	6	Ramón Bajo.....	15
Errekabarri.....	6	Salburua.....	16
Luis Dorau.....	7	Umandi.....	17
Virgen de Oro.....	7	San Ignacio.....	17
Miguel de Cervantes.....	7	Koldo Mitxelena.....	18
Aranbizkarra.....	8	Ikas-Bidea.....	19
Arantzabela.....	9		
Barrutia.....	10		
Ibaiondo.....	11		

Bergoi Madernazek
Denon Eskolarako egina
2017ko udaberrian.

*Kaixo Fernando,
zein da eus-
kararen egoera
Abendaño ikasto-
lan?*



Ba umeak klase barruan euskaraz egiten dute, baina atera bezain pronto, txipa aldatu eta pasiloetan eta patioan erdera hutsez ibiltzen dira. Alarmak salto egin zuen

duela urte batzuk Pisa moduko txosten bat argitaratu zenean eta euskara maila asko jeitsi zela ematen zuenean.

Gure iritziz, arazo bat baino gehiago dago datu honen atzean, adibidez ikastoletan D eredu naturala desagertzea edo Gasteizko bizimoduan euskararen erabilera eskasa dela.

Eta zer egin duzue honi aurre egiteko?

Hainbat ekintza egiten ditugu, GEU elkarteak antolatzen dituen hainbat ekintza **Igandeak Jai** bezala, edo **jolas tradizionalen inguruko tailerra** adibidez. Hauek familiekin egiten dira eta klase orduetatik kanpo.

“Begirale eta hezitzaileen portera oso garrantzitsua da umeek euskaraz egin dezaten.”

Eskolaz kanpoko guztiak ere euskaraz egiten ditugu. Kirol koordinatzaile bat daukagu eta bera arduratzen da begiraleak kontratatzeaz. Oso kontuan izaten du begiraleak zer nolako jarrera daukan umeen eredu izaten direlako.



Eredu izatea oso garrantzitsua da, umeek helduen portaerak imitatu egiten baitdute. Gainera helduak nahi gabe pasatzen gara gaztelaniaz hitz egitera era inkonzientean. Adibide bat jartzearen, ikastolan bertan gaztelania ordu kurrikularretan entzutea ez da eredu on bat ikasleentzat.

Gauza txikiekin eta keinu txikiekin egoera asko aldatu daiteke, baina horretarako begirale eta hezitzaileon portaera oso garrantzitsua da. Gainera, gauzak norbaitek bere gain hartzen baditu ateratzen dira.

Mariturri

IKASTETXEA



Mariturri eskolan Maribel eta Unairekin egon izan gara

Kaixo, zeintzuk dira euskararen alde egin dituzuen ekintzak?

Unai: Ba normalean auzoan urtean zehar egiten diren jaiak ospatzen ditugu, adibidez **Agate Deuna** otsailean, **Olentzero** ere bai, **ihauteriak** eta gutxi gora behera urte osoan zehar dauden jaiak ospatzen ditugu.

Maribel: Euskararen egunean **Maritxu Berritxu** etorri zen. **Euskararen** alde dagoen **maskota** da. Berarekin kalejira egin genuen patiotik eta ipuinak kontatu zizkigun ipunkontalaria ere izan genuen.



Gurasoentzako ekintzarik egiten duzue?

U: Saiatu gara **euskara klaseak** egiten eta **mintzalagun** edo guraso lagun moduko taldetxo pare bat biltzen dira.

M: Aurten 2 edo 3 gurasola-guntzaile animatu dira eta bost paseiko talde bat dago. Asteko egun baten biltzen dira patioan bertan 16:30-17:30 inguru, zabalik dagoela eta umeak jolasten duten bitartean hainbat gaietaz aritzen dira.

U: Udaletxeak edo instituzioek egiten dituzten ekintzak saiatzen gara hona hurbiltzen. **Aisa programa** adibidez.



ZABALGANA



Kaixo Yolanda eta Koldo. Zer egiten duzue Zabalganan euskara sustatzeko?

Yolanda: Ba **familientzat bar-netegia** eskeintzen dugu, urtean behin asteburu pasa dijoaz hainbat familia eta begiraleekin lagunduta ekintza desberdinak egiten dira euskaraz.

Arrakastatsua izaten da ia urtero.

Koldo: **Mintzodroma** egiten dugu urtean behin, euskararen egunaren inguruan izaten da eta ume zein gazteak jartzen ditugu hainbat gairen inguruan hizketan. Euskararen egoera auzoan, eskolako lanen inguruan, e.a Bertso saio batekin amaitzen dugu urtero.



Y: Aurreko urtean familiei zuzendutako **aldizkari bat** atera genuen, 3 ale atera ziren hainbat gairen inguruan, euskaraz noski.

K: Urtean zehar jai desberdinak ospatu egiten ditugu, **Santa Agenda, Olentzero**, e.a. euskal kultura sustatzeko.



Y:Eta **Lingolang proiektuan** parte hartu dugu aurten. Jatorri desberdineko hainbat ume bildu ditugu eta hiztegi txiki bat egin du haietako

bakoitzak bere hizkuntzan. Erreferentzia hizkuntza euskara izanda, noski. Bideoan grabatu izan ditugu eta web gunean eskegi izan dugu. Datorren urtean norabide berria hartuko du proiektuak, 2. fase batera salto egingo du.



ALDAIALDE



*Kaixo Eneko,
zeintzuk dira
euskararen alde
egin dituzuen
ekintzak?*

Korrikaren aldeko pankarta izan da egin izan dugun lehenengo ekintza. Gurasoak bildu izan gara atzean dudan pankarta egiteko.

Eta ze ekintza gehiago egin duzue?

Auzoan antolatzen diren beste ekintzetan parte hartzen dugu ere. **Olentzero eta Mari Domingiren antolaketan, Agate Deunean** abestera ateraten gara. **Korrikaren bideoa** auzoko beste ikastetxeekin grabatu genuen ere. Ikastetxe berria da eta ilusioz beteta gauden arren ez dugu astirik izan gauza gehiegi antolatzeko oraindik.



Errekabarri Eguzkia

Ikasleen Guraso Elkartearen



Aupa Joane, ze egiten duzue Errekabarri barrin euskara sustatzeko?

Ba orain hiru lantalde sortuko ditugu eta hoietako bat euskara eta kultura izango da. Jada hainabat bolondres ditugu eta bilera bat egin behar dugu etorkizunean zer nolako ekintzak egiten ditugun erabakitzeko.

Eta gaur egun arte, zer nolako ekintzak egin dituzue?

Orain dela gutxi korrika izan da eta **korrika festa antolatu** dugu gure eskolan. Salburuako ikastetxeekin batera **kilometro bat erosi** izan dugu.

Auzoko beste eragileekin batera, Sarbururekin, Burdinbide auzo elkartearekin eta Salburuako eskolarekin, **Agate Deuna** eta **Olentzero eta Mari Domingi** bezalako festetan parte hartu dugu auzoan. Errekabarri auzotik kanpo dagoenez, ekintza gehienak eskola-ordutegian egin dira. Helburua aisialdi orduetan egitea da.



Arratsalde on José Luis, ¿que haceis para fomentar el euskera?

Intentamos desarrollar el mayor número de actividades en euskera. En el colegio hay un 40% de inmigrantes y los monitores siempre intentan utilizar el euskera, aunque con los recién llegados o los que no tienen facilidad son flexibles.

¿Los monitores tienen alguna formación especial?

Hay que decir que las AMPAs nos hemos beneficiado en parte de la crisis. Tenemos monitores con muy buena formación, gente universitaria, que tiene el EGA o que viene del modelo D.

¿Que actividades se hacen en euskera?

Pues **todas las deportivas, parte de las culturales** y a final de año realizamos **la semana cultural** y los **udalekus**, que tienen éxito y son en euskera.

AMPA PAGAZURI
ASOCIACIÓN DE MADRES Y PADRES
DEL COLEGIO PÚBLICO
VIRGEN DE ORO DE MURGIA

Este año hemos organizado un taller para padres y madres que apoyan el euskera aunque no lo sepan o dominen.

El taller se titula: “No sé euskera ¿Cómo puedo ayudar en su normalización?”

Por otro lado procuramos que las actividades **extraescolares** se impartan en euskera. Aunque no resulta fácil encontrar monitorado que se desplace hasta Murgia.



A.M.P.A. "CERVANTES" G.E.
CP Miguel de Cervantes Ikastetxea

Estamos con Beatriz, y nos dice que no es fácil trabajar ya que pocas familias se implican. Pero que hay una antigua alumna que suele ir a la fiesta de fin de curso y ameniza la fiesta con la trikitixa cantando canciones en euskera y fomaentando nuestra cultura.



Aranbizkarrako ikastolan Naiara, Sinaita eta Zuriñerekin gaude.

Kaixo, zer ekintza egiten dituzue euskara sustatzeko?

Naiara: Lehenik eta behin, eskolako egoera azaldu behar dugu. Hemen familien %80a edo etorkin jatorrikoa da, ume gehienak hemen jaioak diren arren. Oso familia euskaldun gutxi dago ikastolan.

Nolako ekintzak egiten dituzue?

Zuriñe: **Gurasoentzako euskara eta gaztelania klaseak** ematen dira. Gaztelania klaseekin iaz hasi ginen era bolondrean hasieran eta diru laguntza baten bidez, orain irakasle bat dator.

Sinaita: Euskarari dagokionez **Auzoko programa** daukagu, 5-6 pertsonetako taldea daukagu, eratorri desberdineko pertsonak, eta euskarara lehen hurbilpena egiteko balio du. Gaztelaniak arrakasta gehiago dauka, behar handiagoa daukate ikasteko.

“Etorkin familiek gaztelania ikasteko behar gehiago daukate. Bihar ez baitakite non egongo diren”



Eta umeentzako?

Zuriñe: Ba eskolaz kanpokoak euskaraz egiten ditugu, nahiz eta segun zein ekintzetarako begirale euskaldunen falta dugun. Bollywood ekintza gaztelaniaz da adibidez.

Naiara: Familiekin, hilabetean behin **irteera** bat egiten dugu eta bertan egiten diren gauzak euskaraz izaten dira. Olleriasoko bustin museoko azalpenak adibidez euskaraz jasotzen ditugu, edo Iparraldera **antzerkia ikusten** bagoaz ere euskaraz da.

Sinaita: Hala Bedi Irratira egin izan dugu irteera ere, eta **Alaibedi programan** parte hartu dugu familian, oso interesgarria.





Kaixo Xabi, zer egiten duzue Arantzabelan eskulararen alde?



Gasteizko Udaletzeko euskara zerbitzutik urtero pare bat hitzaldi eskeintzen digute. **Sentsibilizazioa** lantzen dutenak.

Hezitzaileontzako formakuntza eskeintzen digute ere, eta aurrean jantokiko begiraleak trebatu ditugu.

Kantari proiektuan parte hartu dugu ere.

Lehen aldia da Gasteizen egiten zena eta hainbat taldek parte hartu zuten. Eitb-k antolatutako gauza bat da GEUren kudeaketaz. Montehermoso jauregian grabatu egin zuten saioa.

Eta guraso elkarte bezala zuek propioki antolatzen duzue zerbait?

Ipuin kontaketa ume guztientzat eta **ipuin topaketak** antolatzen ditugu 4, 5 eta 6. mailako umeentzat. Hauek asteazken arratsaldean egiten ditugu klaserik ez dagoela probestuz. Hilabetean lau ipuin kontaketa saio egiten ditugu ipuin kontalari batekin eta gero topaketa izaten da.

Topaketan laugarren mailakoek irudi bat margotu behar dute testu bat entzun ostean, bostgarren mailakoek irudi batetik testu bat osatu behar dute eta seigarren mailakoek komiki bat osatu behar dute lehenengo biñeta batetik ha-

sita. Nahiko interesgarria izaten da, topaketan 45 bat umek parte hartu zuten eta kontaketa ehun bat umek.

Parte hartzea aipatu duzula, nolakoa izaten da orokorrean?

Umeentzako ekitaldiek oso harrera ona daukate

orokorrean. Baina gurasoen parte hartzea behar denean, sentsibilizazio tailerretan bezala, asko jeisten da. Beste batzordeekin gauza bera gertatzen zaigu, erreleboa topatzea kostatzen zaigula.



Barrutia ikastola



Arratsalde on Araceli eta Marian, zer egiten duzue Barrutian euskara sustatzeko?

Marian: **Topaketa** bat egiten dugu kurtsu amaieran, ekainean, eta urtean zehar prestaketa lanetan edo ba hainbat ekintza egiten ditugu ere.

Araceli: Euskara batzordeak antolatzen du eta ume guztientzako bideratua dago, aurten 11. edizioa da eta “Iragana Gogoratzen” izango du izena. Berez gure aiton-amonen garaiko jolasak, lana eta bizimodua ekarriko dugu gogora.

M: Ekaineko arratsalde baten egiten da eta denak ez datozen arren, ikastolako ia ume guztiak datoz.


A: Urtean zehar marrazki bat egiten dute umeez eta guztietatik bat aukeratzen da kartela eta kamisetak egiteko.

M: Nahiko koordinazio behar da, hainbat gauza eskola orduetan egiten direlako irakasleekin eta beste hainbat kanpo gurasoekin.

Topaketa urte osoko lana da, festa ekainean den arren.

Ze beste ekintza egiten dituzue?

A: **Santa Agedan** abesten ateratzen gara, **Mintzalagun** talde bat daukagu eskola orduetan biltzen dena, **mendira irteera** bat egiten dugu, eskolaz kanpoko **hezitzaileei formakuntza** emateko tailerrak lotzen ditugu, guraso elkarteak **udalekuak** antolatzen ditu... Ba euskara batzordean bost pa sei gara eta dugun denbora probesten saiatzen gara.



*Kaixo Amaia,
zer egiten duzue
Ibaiondon euskara
bultzatzeko?*



Orain arte Lakua-bizkarrakoekin diru laguntza bat eskatu izan dugu eta **euskal jaia** antolatu izan dugu urtero. Enpresa bat kontratatu izan dugu eta jolasak, karaokea, dantza plaza,... bezalako ekintzak egin izan ditugu.

Jai hau auzoko edozeinentzat zabalik zegoen, urte baten eskola batean eta hurrengoan bestean egin izan dugu. Baina beti berdinak elkartu izan gara eta euskal kultura hedatzeko balio dezakeen arren ez du euskararen erabileran ia inolako eraginik.

Orduan hemendik aurrera zer egiteko asmoa duzue?

Beste gauza batzuk egiteko intentzia daukagu.

Alde batetik, konturatu gara patio orduetan eta pasiloetan oso euskara gutxi entzuten dela. Eskolako zuzendaritza ere diagnostiko honekin bat egiten du.



Eta zer edo nola egingo duzue hemendik aurrera?

Gaur egun arte erabili dugun formatua agortua dago, ekintza kulturalak bakarrik egiteak ez du euskara gehiago erabiltzera bultzatzen.

Familia eta gurasoen parte hartzea eta inplikazioa bultzatu nahi dugu, eskolan zentratu nahi ditugu ekintzak eta proiektu bat martxan jartzea gustatuko litzaiguke.

Egia esanda zaila da, gauzak egiteko dirua behar da, eskola orduetan egiten diren gauzetarako ez dute dirurik ematen eta apur bat galduta gaude gauzak nola egin daitezkeen.

LUIS ELEJALDE



Kaixo Puy eta Edurne, ¿que actividades haceis en favor del euskera?

Edurne: Todas las actividades **extraescolares** las hacemos en euskera. A demas a los monitores se les ofrece **un curso sobre como fomentar el euskera**. Es dificil que acudan todos los monitores, porque siendo un dia en concreto no todos pueden.

Puy: También **celebramos el día del euskera**, el 3 de diciembre. Repartimos castañas y se sacan los cabezudos que tiene guardados el ampa.

E: Como desde la escuela no se hacía **barnetegi** pues lo empezamos a ofrecer desde el ampa. Van todos los niños de lehen hezkuntza. Suele ser un fin de semana, en Lastur u otro sitio.

P: En verano organizamos **jolas-txokos o rincones de juego**. Son como udalekus pero solo por las mañanas.

E: También celebramos la **semana de la lectura**. Esta semana viene algun escritor famoso que escriba en euskera. Los txikis se traen algún libro desde casa, se procura que sean en euskera, pero tambien traen de todo.

P: Tenemos dos grupos de euskal dantza, la música que ponemos es en euskera y por supuesto que todos los papeles los mandamos en bilingüe.

Y ¿que proyectos teneis para el año que vienen?

Pues queremos poner en martxa un proyecto en el que las familias de inmigrantes cuenten sus istorias en euskera. Aunque no es un tema fácil, ya que llegar es bastante complicado. Algunas familias tienen hasta cuatro idiomas diferentes, asi que es complicado. Aunque cada vez son mas familias de otros orígenes, en haur hezkuntza ronda el 60%.



LAKUABIZKARRA



Kaixo Maribi,
Monica eta Montse, zer egiten
duzue Lakuabiz-
karran euskara-
ren alde?



Hainbat ekintza
egiten ditugu,
**eskolaz kanpoko
ekintzak** eta
zaintza euskaraz
dira, **euskal jai-
mintzalagu-
na, hitzaldi eta
tailerrak, kurtsu
bukaerako jai...**



Nola antolatzen zarete?

Maribi: Ba duela sei bat urte eus-
kara eta jaiak lantaldeak batu egin
genituen.

*Y ¿como os amoldáis? ¿Es enrique-
cedor para vosotras?*

Monica: Pues las reuniones las
solemos hacer en castellano, para
que sean más fluidas y nos enten-
damos todas.

Montse: Para mí es enriquecedor,
saber más idiomas suma y además
es es una demanda de nuestros
hijos y de la sociedad.



*Aipatuko zenuke ekintzaren bat
zehazki?*

Bai, **Kantari egitasmoa** adibidez,
12 talde aurkeztu ziren, aurrez
abesti eta koreografia bat prestatu
eta Oihanederren aurkeztu zuten.

Hilabetean behin **“euskararen
agenda”** berritzen dugu. Gasteizen
eta Araban egiten diren euskaraz-
ko ekintzen kartelak jartzen ditu-
gu. Eta **paisai linguistikoa zaintzen**
saiatzen gara, hau da, entregatzen
ditugun orriak bi hizkuntzetan
egotea zaintzen dugu.

Mintzalaguna kili kolo atera da
aurten.

Mari Domingiren jaiak ere aipatu-
ko genuke. Emakumearen pisua
indartzeko Olentzerori baino
protagonismo gehio eman nahi
izan genion.





Odon de Apraiz Ikastola

Aitziberrek kontatu digu zein den egoera Odon de Apraizen eta zer egin duten.

“Gure ikastolako patioan denbora dextente pasatzen dugu eta zorixarrez haurren artean euskeraren erabilera oso nabarmena ez zela konturatu ginen.

Patioan euskeraz ekintzak egiteko proposamena bururatu zitzaigun. Hilabete bakoitzaeen ekintza polit bat, non umeak gurasoekin batera eta euskaraz jolasteko, abesteko, landatzeko.... Aukera izango duten.



EUSKARA EGUNA: Abenduak 3a, euskararen nazioarteko eguna dela eta, hainbat ekintza antolako genituen, txapak egiteko tailerra, dantza plaza, pankarta margoketa, euskal graffitiak...

FAMILIAN KANTARI: Santa Agedako kanta eta ikastolak egun horretarako dituen koplak



aurkeztu eta ikastea izango da ekintza honen helburua.

ZIRKOA: Aurtengo korrikako gaia zirkoa dela kontutan izanda, malabareak egiteko pilotak, oreka mantentzeko soka, aurpegiak margotzeko txokoa... egin genituen.

ZURA PINTATZEN: Baratzeko batzordearekin batera pale batzuk berriztea izango zen tailer honetako helburua.


Hemendik aurrera egingo ditugun tailer ezberdinak:

FAMILIAN DANTZAN: Dantza bat ikastea izango litzateke ekintza honen helburua.

LANDAREAK LANDATU : Ikasturetean zehar titaren txokoan landutako hazietatik irtendako landareak poteetan landatzea da ekintza honen helburua.

BESTE EKINTZA BATZUK: Euskararenganako daukagun sentimendua ikastolako paretan ikusgai margotzea da beste helburu bat.”

RAMON BAJO



Ramón Bajo Ikastetxea



Kaixo Leire, zer egiten duzue

Ramón Bajon euskara sustatzeko?

Hainbat gauza egiten ditugu, ez behar diren guztiak, dena gutxi da-eta euskararen erabilerari begira.

Bertso eskola daukagu, **Auzoko programan** ere parte hartzen dugu.

Auzoko Topaguneak martxan jarri zuen programa bat da, Gasteiz izan zen lehen hiria proiektu hau martxan jartzen zuena. Bertako euskaldunak jatorri desberdineko jendearekin jarduten du, euskarara hurbiltzeko asmoarekin.

Ur freskoa ekarri digu, euskaldunek esan izan dute asko ikasi izan dutela. Eta erdaldunak, dakiten gutxi hori erabiltzeko animatu izan ditu eta gehiago ikasteko animatu dira.

Kontu handiz ari gara hizkuntza aniztasuna lantzen, datorren ehun urteetan hizkuntzen %90 desagertuko da. Euskara hizkuntz gutxitua da ere eta galtzeko arriskuan dago, horregatik gogoratu behar zaie guraso guztiei.

Ikerketa baten ageri izan zen moduan, Gasteizen euskaldunok egundoko beharra dugu gure seme-alabek euskaraz egiteko, baina militantziaz nekatuta gaude. Eta egoera hau oso kezagarria da

eleaniztasunean euskara zaintzeko euskaldunak eta euskaltzaleak baikara eragile nagusi.

Korrika txikian Ipuin kontaketa bat antolatu

genuen, bertan gurasoek haien hizkuntzan kontatzen zituzten ipuinak eta seme-alabek euskaraz. Denetarik izan genuen, ipuin arabe bat, quichua, menorkia, ...

“Hizkuntza aniztasuna beharrezkoa da, baina hizkuntz gutxiak babesten duena. Gure kasuan euskara.”

Zergatik ez?
Euskararen erabileraren soziala bultzatzeko tailerra

Igandeak jai
Ramon Bajo ikastetxean
Maiatzaren 31n
17:00etan



Kaixo Mikel, nola bultzatzen duzue euskera Salburuako eskolan?



Eskolaz kanpoko ekintza denak euskaraz burutzea dugu helburu. Begiraleek berez ez dute berezko trebakuntzarik, baina berez euskaraz egiteko gai diren behintzat saiatzen gara.

Hala ere, begiraleak lortzea eskolaz kanpoko ekintzaz arduratzen den gurasoaren esku gelditzen da. Eta batzutan arazoak daude begiraleak lortzeko.

Ekintza zehatzagoei dagokienenez, **Korrika** izan da duela gutxi egin duguna, **fiesta** txiki bat antolatu dugu, **kilometroa erosi** egin dugu guraso elkartetik, eta gehienbat arduratu gara umeei erakustez zein garrantzitsua den euskararen transmisioa eta erabilera sustatzea.

Nolako erlazioa daukazue eskolarekin euskara lantzerako orduan?

Bereziki ez dugu hartu-emanik euskarari dagokionez. Eskolako **hizkuntza proiektuan parte hartu** izan dugu, ez guraso elkarte bezala, baina bai eskolako organo gorenean gauden gurasoek parte hartu dugu.

Nola antolatzen zarete?

Gustatuko litzaigukeen arren, ez dugu lantaldeka lan egiten. Gauden sei bat guraso saltsa guztietan ibiltzen baitkara. Inguruko beste eragileekin ere koordinatu izan gara auzoan ekintzak egiteko, bai auzo elkartearekin, zein Erreka-barrikoekin, adibidez.

SALBURUKO OLENTZERO eta MARI DOMINGI

Abendua 24 de Diciembre 17:00h

Kalejira miretan zehar, Olentzeroekin eta trikitilariekin / Kalejira on Olentzero y trikitilariak por el barrio

Trikitilatada, auto berea eta gaitan utzari baten eraketa / Trikitilatada, vino calientes y sintonía de fiesta de navidad

OLENTZERO: IRTEERA-SALIDA PARQUE SALBURUA
MARI DOMINGI: IRTEERA-SALIDA CENTRO BERRI ONA
 C/AGUIJILLA MISTRAL 27

NELDUERA-LLEGADA CEIP SALBURUA

Organizazio: Salburuko kale 7
 Patrocinario: LABORAL C.
 Colaboran: VITORIA GASTEIZ, Egibide, Diario, Gasteiz



*Egun on Ana,
zer egiten duzue
Umandi ikastolan
euskara bultzatze-
tzeko?*



Ba **euskararen astea** prestatzen dugu, aurreko urtean herri kirolen inguruan jardun ginen eta duela bi urte aintzinako errota bateko langilea etorri zen. Honek garia irin nola bilakatu irakatsi zien umeei eta errota bateko harri txiki bat ekarri zuen eta guzti. **San Prudentzio** ere ospatzen dugu.

Eta gurasoek parte hartzen duzuen zerbait egiten duzue?

Bai. **Mintzalagun** bi talde ditugu, gehienbat amak elkartzen gara astean egun batean umeak eskolan dauden bitartean, eta hainbat gaien inguruan aritzen gara euskaraz. Talde bat oinarrizko mailakoa da eta beste bat aurreratuagoa. Gure artean moldatzen gara eta oinarrizko taldearekin euskaraz ongi moldatzen den ama bat dago.

Horretaz gain, **libruaren egunean** hainbat ama etortzen dira ikastolara ipuinen bat euskaraz irakurtzera. Euskaraz oso ongi moldatzen ez badira ere positiboa da haientzat eta umeentzat.

Eta GEU elkartearekin antolatzen ditugu beste ekintzak, ba **Igandek jai** kasu.



Estamos con Leidy y Atika en San Ignacio. Nos comentan que hacen todas **las extraescolares** en euskera. Recientemente han realizado un taller para padres y madres de como incentivar el euskera, dando diferentes herramientas. Y este año tenían tres voluntarias para hacer **juegos en euskera** en las

17 horas del jantok, pero al final no salió, a ver para el año que viene.

*Kaixo Edorta,
zer egiten duzue
Koldo Mitxelena
euskararen alde?*



Euskara erabiltzea eta sendotzea lehentasunezko gaia da Koldo Mitxelena; hori dela eta, bultzatzen ditugun ekintza gehienak horretarako daude bideratuta.

Alde batetik, **ikasturte hasieran** institutura datozen ia ikasle guztiak **Zuhatzako irlara** eramaten ditugu. Aurten 110 ikasleliko ehun joan izan dira.

Bost egunez egoten dira bertan, begiraleak lagunduta hainbat ekintza egiten dituzte. Begirale batzuk ikasle oihak dira eta eredugarria da hori parte hartzen duten ikasle berrientzat.

Oso positiboa da haientzat, lehen egunean gurasoekin gaztelania hutsean dijoaz eta bost egunen ostean ia gehienak euskaraz hitz egiten jeisten dira autobusetik. Gainera zituzten erlazioak berrantolatzeko balio zaie eta haien artean elkar ezagutzeko ere.

Egiten dugun beste ekintza **Mintzakafea** da. Bertan berrehun bat ikasle parte hartzen dute, batxilergo lehen eta bigarren mailakoak.

Normalean polikiroldegia, pasiloak eta hainbat gelatan banatzen dira, taldeka eta gai baten inguruan hitz egiten dute kafea eta pasten inguruan. Talde bakoitzak dinamizatzaile bat dauka eta 10-15 minutu pasata beste talde batera egiten dute salto.

Gai desberdinak landu egiten dira, antolatzaileok jartzen ditugu

gaiak, baina bi urtetik behin euskara hartzen dugu gaitzat. Ikastetxetik ateratzen diren gazte guztiak landua izan dezaten.



Mintzakafea

amaitzeko **pertsona erreferente** bat ekartzen dugu bere gauzak kontatu ditzan, aurten Bernardo Atxaga etorri da adibidez.

Horretaz aparte, **begiraleei eta hezitzaileei formakuntza** eskeini egiten diegu ere. Eskolaz kanpoetan euskeraz moldatzko herramintak izan ditzazten.



IKAS BIDEA

*Egun on Biki eta
Marta, zer egiten
duzue Ikasbide-
an euskararen
alde?*

Marta: Ba ikastetxe integrala izan-
da saiatzen gara adin guztietarako
gauzak egiten.

Lehen hezkuntzako lehenengo zik-
lorako **jolasak familian** euskaraz
prestatzen ditugu.

Biki: **Senide artean programa** ere
kudeatzen dugu, gehienbat HHko
eta LHko 1. eta 2. zikloko fam-
ilientzat. Familian euskaraz ai-
sialdian disfrutatzeko ekimena da.
Ikasturte hasieran familiak koor-
dinatzaile batekin biltzen dira eta
adin tarteka banatzen dira taldeak
eguna erabakitzeko. Astean behin
gelditzen dira familia hoiek eus-
karaz hainbat dinamika egiteko,
famiak euskaraz era positiboan
eta hezkuntzatik kanpo egin dai-
tezkeela demostratzeko balio du.

Urte amaieran talde guztiak elkart-
zen dira irteera batean eta bazkari
bat egiten dute. Oso positiboa iza-
ten da, kurtsio hasieratik amaierara
egundoko bilakaera dago.

“Gazteok parte hartzeko
importantea da haiek
ekintzak antolatzea.”

Eta beste maila batzuetakoekin,
zer egiten duzue?

M: DBHkoekin **kuadrilategi edo
gazte kluba** moduko zerbait egiten
saiatu gara baina ez du arrakastar-
ik izan.



B: **Mintzodromoa** egiten dugu
urtero eta **Oihan Vegaren irratia
didaktiko tailerra** ere egiten dugu.
Bertan Oihanek irratia ikastolara
ekartzen du eta gazteontzako oso
erakargarria izaten da.

M: Batxilergoko ikasleekin **Lagu-
narteko hizkeran jolaseak tailerrak**
egiten ditugu. Sexuarekin zeriku-
sia duten esamoldeak ikasteko,
haserretzekoak, lagun artekoak...
Gazte hizkera lantzen dugu.

B: Eskolaz kanpoko guztiak eus-
karaz egiten ditugu, hezitzaileek
udaletxetik eskaintzen duten
euskara baliabideen ikastaroetan
parte hartzen dute. **Ikasle ohi
ospetuak datoz hitzaldiak ematera,**

Gorka Beloki, Iñaki (Betagarri)
edo Zeledon etorri izan dira.



Laguntzailea:



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala